

ZENBAT BURU

Koldo Galdona

ERREPORTAJEA

Bonsaiak elgoibartaren etxeetan

BARREN

1998ko uztailearen 17a
V. urtea - 245. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

GEHIGARRIA

kiliBARREN

GAZTAROA

6NEMEN9 musika taldearen azken diskoa kalean

Nazioarteko XII. Folklore Jaialdia




azkue

“Dantza, mugimenduaren bidez hainbat gauza eta sentimendu adierazteko era da”

Lourdes Odriozola, dantza irakaslea (BARREN-1995)



Burtsa infor-
matikoa



GABILONDO

INMOBILIARIA AGENTZIA

Zuzenbidean lizentziatua



API { Edurne Gabilondo Loyola
Jose M^a Azpeleta Iturricastillo

Euskal Herri osoan etxebizitzak dituzten
60 agentzia



Zorionak mendarotarrei!

San Frantzisko, 51-ezk ELGOIBAR • Tel: 943 74 44 67

ERAIKUNTZA BERRIA

- Azkenengo etxebizitzak
- 2-3 logela
- Erdigunean

GARAJEAK

- Erdigunean
- 580.000 pta.tik aurrera

AHOLKULARITZA JURIDIKO eta FINANTZIE- ROA

Salerosketa eta alokairu kontratoak
Era guztietako inmoiliaria-lanen kontratoak
Hipoteka maileguen azterketa
Balorazio, tasazio eta peritatze ekonomikoak

LYZAIDE

Jai zoriontsuak

KAFETEGIA

JATETXEA

Ospitale parean

Mendarozabal, z/g

Tel: 943 75 51 44-75 61

MENDARO

- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Bataioak
- Banketeak
- Enpresentzako jatorduak
- Urtebetetzeak
- Despedidak





KOLDO GALDONA

Entsalada eta txuleta

Ez nator euskal jakien apologia egitera, ezta euskal labelaren dohaineko propaganda egitera ere. Gaurkoan hainbat jenderen aurrean nik dudan ohi-tura bat defendatzeko apobetxatuko ditut eskaintzen dizkidazuen lerro hauek.

Zein ote da nire ohi-tura hain kritikatu hori? Ba ez da hain berezia ere: edonora noala afaltzera edo bazkaltzera, beti entsalada eta idi txuleta eskatzen ditut.

Zenbat kritika entzun behar izan ditudan ez dutue imaginatzen: beti gauza bera jatea aspergarria dela, jatetxe bakoitzean gauza bereziak daudela dastatzeko, Getarian arraina oso ona dela, Errioxan arkumea eta Candidoren etxean txerria jaten duela mundu guztiak.

Niri berdin zait, jatetxe batera bazkari edo afaria egitera noan bakoitzean bilatzen dudana une atsegingarri bat pasatzea da eta hau jaki hauekin lortzen dut: tomatearen kolore gorri biziak letxugaren berde indartsuarekin egiten duen konbinazioarekin eta atun zati handiak ematen dioten izakera bereziarekin, guztia olio eta ozpin

ugariz bustia. Hau jaten nagoen bitartean ez dit inolako inbidiarik ematen ondoan itsaskirik goxoena edo pate de foie garestia jaten ikusteak. Ondoren, txuleta; entsaladak bere bizitasunarekin irekitzen duen gosea asetzen du.

Eta, horrela, poz-pozik bukatzen dut. Ez dut inolako beldurrik kartan agertzen den izen arraro horri dagokion platerak zer itxura duen ikusteko eta ez dut dastatzeko beldurrez ibili beharrik. Dena dela, askok esaten didaten bezala, ez pentsa aspergarria denik, leku bakoitzean kutsu berezia izaten baitute bai entsaladak bai txuletak.

Ez naiz sukaldaritzan aditua eta ez ditut normalean gai kulinarioak nire hizketaldietan erabiltzen baina badakit gai honetan beste guztietan bezalaxe garrantzitsuena norbera gustura sentitzea dela.

Agian arraroa egingo zaizue gai honi buruzko hitzak botatzea baina nere bizitzan eta guztienean jatea eta atsegina izatea gauzarik garrantzitsuenak direla uste dut eta, beraz, honi buruz ere hitz egin beharra dagoela.

"Edonora noala afaltzera edo bazkaltzera, beti entsalada eta idi txuleta eskatzen ditut. Zenbat kritika entzun behar izan ditudan ez dutue imaginatzen".

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Barreak, Birrak eta Barreak



ARRATSALDE BELTZ
HARTAN, ANTXON
LEHENGUSUAREN
HONDARRAK
ERORTZEN IKUSTEN
ZITUZTEN BITARTEAN,
OLIBA FAMILIA BERE
PATU KRUELAZ
JABETU ZEN.



Nafarroa enparantza, 2
 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Publizitatea:
 ☎ 943 74 37 04
 Faxe: 943 74 37 04

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala
 ZUZENDARIA Ainhoa Lodoso
 KAZETARIAK Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
 PUBLIZITATEA Miren Moreno
 MAKETATZAILEA Mikel Cornejo
 ADMINISTRAZIOA Amaia Martin
 GERENTZIA Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK Irati Agirreazaldegia,
 Ana Artetxe, Jose Mari Bastida,
 Mari Karmen Elorza,
 Maider Elustondo, Jon Eugi,
 Koldo Galdona, Aintzane Garate,
 Jon Garate, Juanito Gorostiza,
 Arnaitz Gorriti, Alberto Iriodona,
 Iñaki Jaio, KOKOE,
 Imanol Larrañaga, Nieves Loliola,
 Ongarri Zine Kluba, Asier Orbea,
 Julian Segundo, Jon Suarez,
 Anjel Ugarteburu, Iban Urizar,
 Miren Vallejo.

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga
 INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.
 TIRADA 4.000 ale
 LEGE GORDAILUA SS-1.038/92
 ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko
 Jaurlaritzako Kultura
 Sailak eta Foru
 Aldundiak diruz
 lagundutako
 aldizkaria.*



Denbora agortu da

Udan sartuak gaude dagoeneko, eta E.H.ko herri eta auzo askotan jaiak dira. Garai aproposa urte guztiko eginbeharrak ahaztu eta, beste zeregin batzuetan aritzeko. Baina parrandaz parranda gabiltzala, espetxeetan, giza-bizi baldintza minimoak bete gabe jarraitzen dute: gaixorik dauden presoek espetxeetan jarraitzen dute, aske egon beharko liratekeen hainbat eta hainbat preso estatu espainiarrak 'legalki' bahituta dauzka, eta hau gutxi balitz, dispersioak berean darrai.

Urtebete igaro da, Euskadi Ta Askatasuna, euskal erakunde armatuak, Miguel Angel Blanco gatibu hartu eta bi eguneko epean exijiturikoa egiten ez bazuten, E.H.-estatu espainiarraren arteko gatazkaren biktima berri bat bihurtuko zela esan eta hala gertatu zenetik.

Eskaera: Euskal preso guztiak Euskalerriratzea (espainiar legeek agintzen duten moduan).

Erantzuna: 'Biolentoen' txantaia-aren aurrean amore ez ematea.

Bestalde, 8 hilabete igaro dira ETAK gartzela frontean su etena iragarri zuenetik, hau da, ez dela inolako ekintzarik egongo gartzelero edo eta gartzelatako beste langileen kontra.

Eskaera: Aurreko bera.

Erantzuna: kolpeak, irainak, isolamenduak,... eguneroko ogia presoentzat.

Zeren zain daude PPkoak? Gartzela fronteko su etena bukatzea nahi al dute, betiko aitzakia faltsuekin, be-rarien legea bete gabe jarraitzeko?

Zeren zain daude EAJkoak? Zertan ari dira jolasten, gaur 'a' esan eta bihar 'b' eginez?

Guk, Ezker Abertzaletik, argi eta garbi daukagu euskal presoak Euskalerriratzea gatazkaren irtenbiderako oso aurrerapauso garrantzitsua izango litzatekeela. Denbora agortu da, eta PPkoak konturatu egin behar dira.

Herriaren ahotsa ez dute isilaraziko

Uztailaren 15ean, asteazken goizaldean, espainiar polizia, Garzon epailaren baimenarekin, EGIN egunkariko lokaletan sartu zen. Egunkaria itxi eta 12 langile eta erredakzio kontseiluko kideak atxiloturik eraman zituzten.

Gaur egun, marko politikoaren agorpena agerian dagoen une honetan, aldaketaren beharra azpimarratzen duen sektoreak gero eta zabalagoak direnean, Partido Popularrak gerraren aldeko apostua egin du, euskal proiektu nazionala eta demokratikoa zapuztu nahirik.

Partido Popularrak armen eta biolentziaren bidez espainol bihurtu nahi gaitu eta ez du onartu nahi euskal herritarrok demokratikoki erabakitzen duguna. Euskal Herria, euskara, euskal kultura dira ezabatu nahi dituen eta horren ordez Espainia inposatu.

Erasoa ez da, beraz, Ezker Abertzalearen aurka, euskal proiektu nazionalaren alde eta adierazpen askatasunaren alde dihardugunon aurka baizik.

Engainatu nahian dabil Partidu Popularra demokrata eta biolentoen arteko muga jarri nahi duenean. Euskal Herriak demokratikoki erabakitzen duena onartu eta errespetatu, hor dago koska, eta hori da Partido Popularrak ukatzen duena behin eta berriz. Benetako demokrazia onartu ala ez, alegia.

Beren buruak abertzale, nazionalista edo demokrata direla dioten alderdiak (PNV, EA, IU) oraingoan ere joko horretan jausi dira, Partido Popularraren dialektika faltsuan eroriz eta posizio espainolistak indartzuz.

Baina gurea gelditu ezin den prozesua da, munduan hainbat herritan gertatu den bezala (Irlanda azkena), hemen ere irtenbide elkarrizketatuek irabaziko dute. Aurrera goazelako hain zuzen ere, Partido Popularra bere perfil neofrankista erakutsi beharrean aurkitzen da.

Herri Batasunak dei egiten die militante eta jarraitzaileei, eta orohar, abertzale eta demokrata guztiei, EGINen aldeko mobilizazioetan eta bereziki, larunbatean, hilak 18, Donostian izango den manifestazioan parte hartzera.

Elgoibarko Herri Batasuna

Elgoibarko Ezker Abertzalea

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**

Iritsi dira oporrak BARREnera

Urtero bezala, sasoi honetan oporrak hartzen ditugu BARRENen. Abuztuaren 22an, San Bartolome jaietako zenbaki berezia kaleratuko dugu eta abuztua amaitu aurretik, egunkari formatoko zenbaki berezia jaietako argazki adierazgarrienekin. Irailaren 11n ohiko BARREN zuen buzoietan topatuko duzue.

Ondo izan eta ikusi arte!

GALDERAK

◆ Herritar batek **San Pedroko bidea konpontzeko asmorik ba ote dagoen jakin nahi du.**

Udaletxera deitu dugu eta **alkateak esan digu berehala hasiko direla bidea konpontzen.** "Proiektua Udalak egin du eta obrak, berriz, Diputazioak egingo ditu. Beraz, berritze lanak amaitzen direnean errepideak Diputazioaren titularitatea izango du. Obren adjudikazioa ere egina dago eta bi hilabete eta erdiko epea dute lanak burutzeko".

KEXAK

◆ Jubilatuta batek esan digu kaleetan **zoluko harri asko solte daudela.** "Gu adinekuak gera eta erreztaluz galzen dogu oreka harri solteren bat zapaldu ezker. Estropoz ein leike eta kolpia hartu. Mesedez, udaletxeko jaunei zeozer eitzeko eskatuko niuke. Eskerrik asko aldeztu aurretik".

TXALOAK

◆ Elgoibarko gazte batek deitu digu aurreko asteko BARREneko alkoholikoen erreportajearen bere testigantza kontatu zuen gaztea txalotzeko. "Hain gaitz gogorra izanda **benetan txalotzekoa iruditzen jata 30 urteko gazte bat BARREni bere esperientzia kontatzeko prest azaltzea.** Gazte honi esker, alkoholikoek bizi dutenari buruzko informazio gehiago daukagu beste guztiok ere". Bide batez, alkoholiko anonimoetan dauden guztiei euren bidean aurrera egiteko indarra eta zortea opa die.

B A I , E S A N ?



Idoia Arozena

EGINeko kazetaria

Gehientsuenok jakingo duzuen bezala, joan den asteazken goizaldean EGIN egunkaria eta irratia itxi zuten Garzon epailearen aginduz. Operazioan 11 lagun atxilotu zituen polizia. Une zail hauek nola bizi dituzten jakiteko, ostegun goizean **EGIN-eko kazetaria den Idoia Arozena** elgoibartarrekin berba egin genuen.

- **Nola bizi dituzue une hauek?** - Momentu honetan bilerak egiten ari gara egoera honi nola aurre egin erabakitze eta zer egin daitekeen ikusteko. EGIN-en 210 langile gara eta gure egoera ekonomiko-laborala zalantzan dago. Informazio falta izugarria daukagu. Beste edozeinek dakiena baino ez dakigu. Sumarioa teoriarik sekretua da baina komeni zaizkien filtrazioak egin dira. Gure lankideak atxilotuta daude eta daki-gun gauza bakarra da gaur edo bihar deklaratzera eramango dituztela.

- **Sorpresa handia izan da.** - Sekulako sorpresa. EGIN-ek beti izan du 'ezpata' gainean. EGIN isteko amorru eta gogo hori historikoa da. Hala ere, 20 urtez egunero kaleratu da. Inpotentzia demasa da, badirudi komando bateko kideak garelako denak.

- **Komunikabide askok ez dute begi onez ikusi EGIN-en itxiera.** - Egia esateko, irratia entzuten egon naiz eta zenbait kazetarik esandakoa inmorala ere iruditzen zait. Badirudi edozer esatea libre dela. Hala ere, Euskal Herriko kazetariengandik laguntza jasotzea espero dut. Gauza bat da EGIN-en linea editorialarekin bat ez etortzea, baina hortik komunikabide bat istera, alde handia dago. EGIN-ek herri honetako sektore baten sentitzeko eta pentsatzeko era jasotzen du eta egunkaria itxi arren, jende horrek berdin pentsatzen eta sentitzen jarraituko du. Gu ginen komunikabide alternatibo bakarra. Aspalditik zuten EGIN isteko gogo eta 'trama finantzarioarena' aitzakia baino ez da izan. Lehenengo pausoa izan da hau eta batek daki PPren bide polizialaren aldeko apustu horrek zer ekarriko duen. Orain guri tokatu zaigu, baina nor izango da hurrengoa? Egunkaria? *Elkarlanean* argitaletxea, akaso?

- **Hala ere, EGIN kaleratu da.** - Halamoduzko zerbait bai. DEIAk errotatik laga dizkigu eta *Euskaldunon Egunkariak* ordenadoreak. Gure helburua normalizatzea da eta argi dugu aurrera jarraitu behar dugula. Gaur (osteguna) 8 orriko egunkaria atera dugu, baina bihar, 16koa aterako dugu eta hurrengoan 32koa. Enpresa itxi dute baina gure gogo ez. Horrelako momentuetan konturatzen zara zein beharrezkoa den gure lana.



I. URTEURRENA

1997ko uztailaren 24an, 91 urte zituela hil zen
LUISA ZUBIZARRETA ALBERDIren oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian
larunbatean, hilak 25, arratsaldeko 19:00etan.
Joaten zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Bonsaiak, ontzietan hazten diren zuhaitz txikiak

*Bonsaia, ontzi baten hazten den zuhaiska da. Normalki ez dute 70 cm.ko altuera baino gehiago izaten baina mendian ikusten ditugun zuhaitzak dirudite. Bonsai hitzak ontzia (Bon) eta hazi (Sai) esan nahi du eta ekialdean du bere jatorria. Dirudienez, herrialde haietan lurra-
ren eta zeruaren, gizakien eta natu-
raren arteko harmoniaren adieraz-
pide dira. Elgoibarren bertan bada-
go jendea bonsaiak lantzen dituena
eta horiekin izan gara nola zaindu
behar diren jakin nahirik. Guztiak
bat datoz arte hau lantzeko pazient-
zia handia behar dela esatean. Era
berean, dei egin nahi diete zaletasun
hau duten elgoibartar guztiei elkarte
bat sortzekotan baitira.*

Juanjo Rumayor-ek esan digu-
nez, “ezkondu ginanian lan-
dare bat oparitu ziguten eta
nola zaindu jakitzeko, landariei buruz-
ko liburu bat erosi eta bonsaiak ezautu
nitxun”. Horrela bada, mendira joan
eta haritzaren adar batzuk hartuta pro-
ba egitea erabaki zuen. Bederatzi urte



Juanjo Rumayor-ek 30 bonsai ditu.



pasa dira ordutik eta gaur egun 30 bon-
sai inguru ditu: haritzak, pagoak, la-
ranjondoak, zumarrak, olibondoak, sa-
garrondoa, okarana, tiloak, ... Bakarra
du erositakoa, “emaztiak erosi zaban
gustau in zitzaiolako baina nik nahixo
det kalian edo mendixan hartutako
adarrekin prozesu guztia jarraitzia”.
Azaldu digunez, “bi sustrai klase dau-
de. Batzuetatik landariak elikatu eit-
xen dia eta bestiak lurrari eusteko bali-
xo dabe. Zela ontzi txikixetan egoten
dian, sustrai haundixak, eustekuak,
moztu itxen jakue eta soka batekin lo-
tzen dia hasieran ondo eusteko”.

Juanjorentzat erlaxatzeko modu
bat da baina badira dekorazio elemen-
tu bezala bonsai ederrak dendan eros-
ten dituztenak, “denda batzuetan esa-
ten dizue nola zaindu eta eurak ere ar-
duratzen dia landariak bihar dabanian
lurra aldatziaz, baina neretzat bonsai
bat ez da dekoratzeko. Neri natura gehixo
ezagutzen lagundu
dia, inguruan dauden
arbolak, arbola horiek
ze forma daken, urta-
ruak askoz hobeto
kontrolatzen ditzut...
Elementu bizidunak
dia eta hori dana eure-
kin batera bizi dozu”.

Juanjok behintzat
ez du pentsatzen natu-
raren kontra egiten
duenik, “nik asko
zaintzen ditzut eta

kontua ez da mendira jun eta edozer
hartzia. Azken batian, errespetu kon-
tua da”.

12 urte bonsaiekin

Joserra Urzelai elektrizista da ofi-
zios baina askoz gustukoagoak dituen
pare bat afizio ditu: bonsaiak eta mar-
gotzea. Natura betidanik gustatu izan
zaio, “poliki-poliki zaletzen zoaz, al-
dizkari eta liburuak erosten dituzu eta
bonsaiak zer diren, nola zaindu behar
diren ikasten duzu”. Hala ere, esan di-
gunez, “jende asko dago ilusioz hasi
arren berehala lagatzen duena”. Jose-
rrak sagarrondo baten bonsaiekin
hastea gomendatzen du, “ikusgarria da
nola hazten den eta, batez ere, urtaro-
ek nola eragiten dioten. Udazkenean
hostoak gorritu egiten zaizkio, neguan
erori, udaberrian lorea ateratzen da eta
udan fruitua ematen du. Benetan poli-
ta da. Udaberrian zain zaude erleak
noiz etorriko polena hartu eta saga-
rrondoak fruitua eman dezan”.

Joserrak aitortu duenez ez die kasu
gehiegirik egiten bonsaiei, “behar du-
ten ura bota, batez ere. Ostantzean, lu-
rra eta sustraiak lau urtean behin begi-
ratu behar dira”. Mendian edozein
adartxo hartu eta hortik bonsaia atera
daiteke. Horrela hasi zen Joserra eta
gaur egun 17 bonsai ditu. Bere etxeko
terrazan badago bat, zumarra, benetan
atentzioa deitzen duena, “10 urte ingu-
ru ditu. Hartu nuenean adartxo bat bes-
terik ez zen eta begira orain, bost




Joserra Urzelai 12 urte daramatza bonsaiekin.

zuhaitz txikiz osatutako basoa daukat. Hau ez nioke inori oparituko, nik hazi nuen eta urte gehiegi darama nirekin". Are gehiago, "bonsai modura egongo ez balira, litekeena da zumarrak desagertuta egotea. Gainera, adar txiki batetik bonsaia atera daitekeen modu berean, alderantzizko prozesua ere posible da, hau da, adar hori ontzian landatu beharrean zelaietan landatu eta zuhaitza sortuko da". Joserrari bonsaiak nola hazten eta aldatzen diren begiratzea gustatzen zaio, "egia da hego haizea dagoenean eta zuhaitzak gaixotzen direnean sufritu egiten dutzula baina gero, sendatzen denean eta fruituak ematen dituzenean, poza ematen dizu". Hori berehala igartzen da. Izan ere, bere etxeko pasiloan, koadro bat dauka zintzilikatua, berak margotua. Bertan terraza agertzen da, bonsai guztiekin, "hamar urte daramatzat eta zaletasun honek alaitasun asko eman dizkit.

Mimatu egin behar dira

Duela lau urte inguru, lankide batek zenbait bonsai erakutsi, hainbat pauso azaldu eta, poliki-poliki, Adolfo Martín bonsaiak lantzen hasi zen etxe-



Adolfo Matinek egunero ureztatzen ditu bonsaiak

an. "Landareak baino gehiago zaindu behar dituzu, dudarik gabe. Ureztatzeaz gain, sustraiak zaindu, adarrak moztu,...". Ez hori bakarrik, mimatu ere dexente mimatu behar dira zuhaitz txiki hauek, "egunero izaten naiz berarekin eta, batez ere, umoretsu nagoeanean, alaitasunez agurtzen ditut, beti emakumezkoak balira bezala tratatuz". Edozein modutan, Adolfo azal-

du digunez, gertatu izan zaio, "zuhaitz bati kasu asko egin eta, hala ere, useltzea eta beste bat bakean lagata eder-eder haztea". Ez dago, beraz, arau zehatzik.

Landare guztiak bihur daitezke bonsai. Adolfo berak, buganbila landarea bonsai modura dauka eta olibondoak, laranjondoak, pikuak,... denetik du. Oso garbi dauka bonsaien zaletasuna arte bat dela, "azken batean, zuhaitz hauek norberak ematen dien itxura hartzen dute. Horretarako alantze bat erabiliz norabide konkretu bat ematen diezu eta horren arabera hazten dira".

Zaletasun garestia dela esan ohi da. Adolfo ireniz, "dendara joan eta han bonsai ikusgarriak daude 25.000 pta.tik gora balio dezaketenak. Kontua da, bonsai hori lortzeko aurretik urte askotako lana dagoela, dedikazio handia, pazientzia handia, arte-lana... Eta hori baloratzeko zaletasuna izan behar da". Adolfo behintzat garbi du berak ez lukeela bonsai bat oparituko, "ordu gehiegi eta lan asko egiten dut, baita penatu ere hostoak usteldu eta erortzen direla ikustean, ondo hazitako bonsai eder bat inori oparitan emateko".

Ekialdeko filosofiaren oinarria

Ekialdeko herrialdeetako filosofian oinarritzen da Bonsaien filosofia. Honela, uste dute, etxean bonsai bat izanik, mendiko zuhaitz handi batek sortzen duen energia guztia eskuratzen dutela. Edozein modutan, bonsaiek denbora eskatzen dute, dedikazioa, pazientzia, begira egotea, maitasuna... eta horiek lantzeaz bat, norbera-

ren lasaitasuna eta harmonia ere lortzen dira.

Bonsaiak lantzen dituzten maisu txinarrak "Pun-sai" eta "Pun-ching" deitzen diren bonsaien artean bereizketa egiten dute. "Pun-sai"k ontzi batean landatutako zuhaitza esan nahi du. "Pung-ching" hitza, berriz, lorontzi edo bandeja batean landatutako zuhaitza da baina paisaia eta guzti, hau da, zuhaitza ezezik, baita haitzak, errekek, et-


xeak, gizonak eta animaliak ere. Bonsaien jatorria Txinan egon arren, japoniarrak izan ziren zaletasun hau mundura zabaldu zutenak, 1878 urtean Parisen ospatu zen Erakusketa Mundialean lehenengo eta 1909an Londresen bigarrenik. X. eta XI. mendeetan, moje budistek Txinatik Japoniara eraman zituzten hainbat bonsai hauentzat

objetu erlijiosoak zirelarik, "zerurako bidea hartzen zuten eskilara berdeak" izanik, hau da, gizakien eta Jainkoaren arteko lotura.

Etengabeko zainketa, mozketa eta lur aldaketak behar ditu bonsaiak, horregatik zuhaitz handiak baino urte gehiago bizi daitezke. Edozein modutan, ongi zaindutako bonsai bat zorientasuna aurkitu duen zuhaitza dela esan daiteke.




Zer behar da oporrretan ondo pasatzeko?




AMAGOIA FERNANDEZ
21 urte, ikaslea

Lasaitasuna batez ere. Onena da plano eta brujula hartuta hor zihar jun toki berrixak ezagutu. Baina nere kontura, ez agentzia batekin dana organizauta.



ALBERTO HERNANDEZ
37 urte, ofiziala


Dirua izan eta hondartzara joatea: bainu bat hartu, pasiatu, lasai ibili... Horretarako hemendik atera behar da, ze hemen eguraldia ez da batere ziuerra.



JOSE ANTONIO FULGENCIO

33 urte, gerentea


Denbora eta dirua. Aurten biak ditut eta hamar egun pasatzera goaz Ibizara. Lehen ere izan gara eta asko gustatzen zaigu.



ANA M. PLAZA

25 urte, etxeakoandrea


Dirua eta osasuna dira garrantzitsuenak. Hortik aurrera, eguraldiak laguntzen badu planik onena Elgoibarraren geratu eta hondartzara joatea da.



FRANCISCO SEIJAS

55 urte, nikelista

Toki lasai batera joatea egun batzuk trankil pasatzera. Niri ez zait gustatzen hondartza. Nahiago dut herri txikiren batera joan eta mendian ibili.



AMPARO GOMEZ

20 urte, ikaslea

Lagun atseginak eduki eta giro ona, batez ere. Onena Elgoibartik alde egitea da, ze hemen ez da inor geratzen. Ni gurasoen herrira noa, oso ongi pasatzen dut.

*Aprobetxatu udaldia gida
bainu eta abarrezko*



Santa Ana, 11 • Tel: 943 74 10 11


*bera ematerakoa %10eko
beherapena gaste
txartelarekin*



ESKERTZA

1998ko uztailaren 4an, 27 urte zituela hil zen **ALBERTO MARTIN MORENO**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Osasunean adituak

GAIA:

Eguzkia hartzeko aholkuak

Eguzkia hartzeak onura ugari ekar ditzake: D bitamina sortzen du, ongizate sententzia ematen du,... Baina zer gertatzen da eguzkipean luzaro egoten garenean? Kalteak sor ditzakeela azalean: mantxak, erreduak, azalaren zahartzea, azaleko minbizia,...

Horregatik, eguzkia hartzeko orduan, fotoprotektore egokiak erabili, beti ere, nor bere azalarentzat egokienak direnak. Krema eman aurretik azala lehor egon behar da eta ez erabili perfume, desodorante edo kosmetikorik.

Gogoan izan behar dugu zenbat eta protekzio handiagoa erabili, gero eta denbora gehiagoz egoteko aukera izango dugula eguzkia hartzen erre gabe. Eguerdiko 12:00etatik 15:00etara bitartean eguzkia hartzen badugu protekzio handiagoko kremak erabili eta ondo babestu zona delikatuak: aurpegia, lepoa, burua, eskotea, belarriak eta orpoak.

OSASUN KEZKAK:

Zergatik agertzen da zelulitisa?

Emakumeen artean arrunta da. Faktore sozialek, bizi-kalitateak, hereden-tziak, arazo hormonalek, metabolismoak, elikadurak,... eragin zuzena dute. Zelulitisak tratamendu jarraitua behar du. Hainbat krema eta tratamendu daude, baina garrantzitsuena kirola egitea, likidoa edatea, tabako eta alkoholik ez hartzea, dieta orekatua egitea eta koipe eta fekulatik ez jatea da. Krema antizelulitikoak eraginkorrak dira baina inportante-ena aipatutako aholkuei kasu egitea da.

DENTISTAK

Agustin Sanchez

..... A. Arrillaga, 8 • Tel: **943 74 37 47**
 Astelehena-ostirala: 9:00-13:00 / 16:00-17:00
 Asteartea, asteazkena, osteguna: 9:00-13:00 / 16:00-19:00

MASAJISTAK

Ezkurra

..... Santa Ana, 14 • Tel: **943 74 08 96**
 Egunero: 15:00-20:00

Victoria Iraegi

..... P. Migel Urruzuno, 31 • Tel: **943 74 07 70**
 Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

Kemen Belardenda

..... San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**
 Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

OPTIKAK

Ikus (Optiko-optometrista)

..... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**
 Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

..... San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**
 Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

..... San Bartolome, 9 • Tel: **943 74 35 62**
 Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Ibiltzen

..... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**
 Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñaki Rivero

..... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**
 Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

ZENTRO PSIKOMEDIKOAK

Arragüeta (ziurtagiri medikuak, gida eta arma baimenak)

..... Arragueta, 2 bis A (Hazienda ondoan, ONCE parean)
 • Tel: **943 700 700**

..... Abuztuan, 3tik 8ra: 10:30-12:00

Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu, deitu **BARRE**Neko 943 74 41 12ra

● 1.625 milioiko eskariak ditu Danobat-ek

Elgoibarko Danobat erreminta makina kooperatibak 1.625 milioi pta.ko eskariak ditu aeronautika sektorean. MCCren barruan dagoen enpresa honen bezeroak EEBBetako General Electric eta Delta Airlines, Alemaniako BWB, Suitzako Swissair eta Japoneko IHI dira, besteak beste. Taldea buru-belarri sartuta dago aeronautika sektorean duela hamar urtetik. Produktzioari dagokionean, Estatuko lehenengoa da Danobat sektore honetan. Aurten 20.000 milioi pta. inguru fakturatzeko asmoa dute, horietatik %75 esportazioetatik etorriko direnak.

● Galiziarra eta Tenerifera bidaiak Jubilatuta Etxearekin

Datorren irailean, 13tik 19ra, Jubilatuta Etxekoak Galiziarra joango dira astebete pasatzera. Bi eta hiru izarreko hoteletan hartuko dute ostatu, pensio osoan. Herri baikoitzetik besterako bidaiak autobusean egingo da eta 17.000 pta.ko prezioa du egonaldiak. Bestalde, irailaren 21etik 30era bitarterako, Tenerifeko hego aldea ezagutzeko bidaiak antolatu dute. 10 eguneko bidaiak honen prezioa 65.000 pta.koa da. Prezioaren barruan pensio osoa, hegazkinez bidaiak eta herri batetik besterako joan-etorriak sartzen dira. Izena ematea lehenbailehen egitea komeni da, plazak mugatuak baitira.

Sallobente Elkarteak 500.000 pta. eman ditu Artazo baserria berreraikitzeko

3-4 milioi lortu nahi dituzte antolatuko diren ekintzekin

Sallobente Elkarteak batzordeak prentsaurrekoa eman zuen asteartearen (hilak 14) Artazo baserria berreraikitzen laguntzeko dituzten asmoak azaltzeko. Batzordekideek esan bezala, "hilaren 10ean egindako bileran, 500.000 pta. emateko erabakia hartu zen ekainaren 19an erre zen Artazo baserria berreraikitzeko". Hurrengo egunean auzoetako 6 alkateak bildu eta laguntzeko prest azaldu ziren. San Migeleko jaietan, adibidez, ididemen proban batutako dirua Artazo baserriko entzat izango da. "Sallobente elkartearen 500.000 pta.z aparte, errifak aterako ditugu DEBEMENen eskutik eta Baserritarren Egunean salgai jarriko dira San Anton egunera bitartean. 10.000 errifa aterako ditugu eta inguruetako azokak aprobetxatu nahi ditugu denak saldu ahal izateko". Guztiak salduz gero, bi milioi pta. eskuratuko lituzkete. Honez gain, udazken aldera artzai txakurren jaialdia egiteko asmoa dute Sallobenten. Gabonak inguruan, Elgoibarko Izarra eta Haritz



Dantzari Taldearen laguntzaz, jaialdi bat antolatuko dute. Gehienez 3-4 milioi batzea espero dutela azaldu zuten.

Une hauetan, Artazo baserrikoak hiru etxetan sakabanatuta daude "baina asteburuan Urasandiko etxe batera doaz denak elkarrekin. Alogera asegurueteak ordainduko du eraikuntza lanek irauten duten bitartean. Bi urteko alogera ordaintzen dute gehienez". Etxearen egitura egina dagoenean, "hain ahaztua dagoen auzolana berreskuratu eta denon artean baserria eraikitzea nahi genuke".

Pello Ezkurrak irabazi du jaietako kartel lehiaketa

11 lan aurkeztu dira nagusien mailan eta 50 haurrenean

Udal Kultura Sailak ezagutzera eman du nork irabazi duen San Bartolome jaietako kartel lehiaketa. Pello Ezkurra 36 urteko elgoibartarrak egindako lana izan da irabazlea eta 60.000 pta.ko saria eskuratu du. Margoa da Pellok erabili duen teknika, neurri desberdineko testuekin hornituz. 15.000 pta.ko akzesita

Iban Barrenetxearentzat izan da. Gazte honen lana eskuz egindako marrazki bat da eta ordenagailuarekin koloreztatu du. Nagusien mailan 11 partehartzailek aurkeztu dituzte lanak. Epaimahaikideak Alberto García Kokoeko kide ohia, Gemma Monreal margolaria, Egur tailerreko kide bat eta Jose Inazio Sarasua Haritz Taldeko zuzendaria izan dira. Haurren mailan partehartze kopurua oso handia izan da, 50 lan guztira. Udal Kultura Sailak 3 sari emateko asmoa zeukan baina partehartzea hain handia izanenez, 7 sari eman dituzte. Sarituak Ander Sanchez, Ander Osoro, Javier Fernandez, Ruben Irigoien, Alba Esnal, Nagore Alvarez eta Luzia Suarez dira. Sari banaketa abuztuaren 23an izango da Udal Areto Nagusian, salbearen ostean.



Ezkerrean, Pello Ezkurraren kartel irabazlea. Eskuman, akzesita irabazi duen Iban Barrenetxearena.



Elgoibarko PPko zinegotzia Jose Maria Aznar presidentearekin

Euskal Autonomi Erkidegoko PP alderdiko 200 zinegotzi Madrilan izan ziren hilaren 8an Gobernu zentralak gonbidatuta. Jose Maria Aznar presidenteak eta gainerako ministroek ongi-etorria egin zieten zinegotzi guztiei eta ondoren, Moncloan denek batera bazkaldu zuten. Elgoibarko PP alderdiko zinegotzia, Juan Carlos Abian, bazkarian izan zen eta argazkian ikus daitekeen bezala, ministroekin eta Aznar presidentearekin hitz egiteko aukera izan zuen. Juan Carlos Abianek azaldu bezala, “oso polita izan zen Aznarrekin eta beste ministroekin aurrez aurre egotea. Bazkalorduan Aznar parez pare eduki nuen, alfabetikoki jarrita geundelako eta tartea aprobetxatu nuen diru laguntzei buruz berba egiteko”. Abianek azaldu digunez, datorren astean ikastaro batean parte hartuko du eta Rodrigo Ratorekin hainbat gai landuko dituzte: IPC-a, interes motak eta datorren urterako aurrekontuak.

‘Alakiketan’ ikuskizunari buruzko erakusketa hilaren 30era arte ikusgai

Haritz Dantzari Taldeak antolatuta, asteazkenean, hilak 15, ‘Alakiketan, tradizioaren ikuspegi bat’ izenburuko erakusketa inauguratu zen. Jose Inazio Sarasua Haritz Euskal Dantzari Taldeko zuzendariak erakusketaren nondik norakoak azaldu zien bertan bildu zirenei. Ekitaldian Gillermo Garate alkatea eta zenbait zinegotzi izan ziren. Hilaren 30era arte, ‘Alakiketan’ ikuskizunearan erabiltzen diren jantziak eta tresnak ikus daitezke Kultur Etxean.



A ze sustoa!

Joan den ostegunean, Aita Agirre enparantzako zuhaitz batean erlauntzak agertu ziren. Hori dela eta, udaltzainek Antonio Markez igeltseroari eta erleetan aditua denari deitu zioten. Markezek kearen bidez erleak uxatu egin zituen eta ondoren egurrezko kaxa batean sartu. Zailena erle erregina erakartzea izaten da baina berau kaxan sartu bezain laster gainontzeko erle guztiek berehala atzetik jarraitzen diote. Benetan ikusgarria zen Markez batera babesik gabe ehundaka erleren artean lasai-lasai nola zebilen ikustea.



San Ferminak Elgoibarran

Azken urteotan bezala, Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaiaka Begirale taldeak antolatuta, ‘San Fermin Txiki Eguna’ ospatu zuten asteartean, hilak 14. Zuriz jantzita eta zapi gorriarekin lepoan, 300 bat haur eta guraso Plaza Handian elkartu ziren, eta ederki asko pasatu zuten batzuek ikusle huts modura, eta beste batzuek, Arnoren zezentxo eta poniak tentatuz. San Ferminetan ohitura den bezala, pregoia irakurri eta txupinazoa bota ostean eman zitzaion hasiera jaiari.



40 emakume Haizeak antolatutako bazkarian

Joan den zapatuan, hilak 11, Haizea Emakume Taldeak antolatutako bazkaria izan zen Altolako Zubia jatetxean. Esan digutenez, 40 emakume elkartu ziren eta oso ondo ibili ziren. “Lehenengo bazkaria izan den arren, urteroko ohitura bihurtu nahi dugu. Arratsaldeko 18:30ak arte egon ginen jatetxean, musika ere izan zen eta arratsalde osoa dantza eta dantza aritu ginen”.

SARGOATEKO ERROMERIA

uztailak 25, zapatua

EGITASMOA

9:00

Mendi irteera

Madalatik Sargoatera oinez

11:30

Meza

12:00

Salda eta txorizoa

12:30

Bertsolariak:

German Meabe eta Ziarda

eta Trikitilariak:

Zabaleta

14:00

Erromeriaren

amaiera

KiliBARRREN

uztailaren 17a
48. zkia

M E N D A R O K O G E H I G A R R I A



Hilabete honetako erretratu zaharra **Manolo Landak** lagatakoa da. Berak esan digunez, 1957. urtean San Fermin jaietan aterata dago, Iruñean. Orduan ere parrandarako gogoia gaur egun beste-koa zela antzematen da. Guztiak azaltzen zaizkigu dotore-dotore jantzita, zapi gorria lepoan. Ezkerretik eskubira: **Jose Urain, Joakin Irigoien** eta **Manolo Landa**. Behean, **Gregorio Gainza, Manuel Urain** eta **Estanis Gallastegi** (†).

S
A
S
T
R
E
R
I
A

S
A
S
T
R
E
R
I
A

Azpilikueta, 24. MENDARO Tel. 943 75 50 86

P
U
B

ARRATS

Zelaikoa Plaza. MENDARO. Tel: 943 75 50 58

Aupa Santanak!



Jaien atarian gaude. Bihar hasita, uztailak 18, festa giroa izango dugu Mendaron. Herri guztietako jaiek izaten dute ezaugarriren bat bereziak egiten dituztenak. Mendaroko jaietan urtero-urtero Bizi-Poza txaranga entzuteko aukera izaten da, 19 partaidek osatzen duten txaranga gaztea. Edozein modutan, batzuei besteei baino gehiago gustatuko zaie txarangaren doinua baina inork ez du ukatuko festa giro izugarria sortzen duela. Eta hori beti da eskertzekoa.

Duela bost urte inguru sortu zen Bizi-Poza txaranga, lagun talde batek izan zuen ideari tira egin eta forma emanaz. Hasiera batean, lagun talde honek herriko kaleetan turutak jotzeari ekin zion baina, poliki-poliki, hori baino zerbait gehiago behar zutela ikusi eta Udaletxera jo zuten dirulaguntza bila. Udalari ideia ona iruditu zitzaion eta instrumentuak erosteko laguntza luzatu zuen. Kideak, ilusioz beterik, instrumentuak jotzen ikasten hasi ziren eta berehala sortu zen “Bizi-Poza” txaranga.

Ordutik gaur arte txaranga eraberritzen joan da, partaide batzuk laga-

tzen joan diren neurrian jende gaztea sartzen hasi delarik. Izan ere, mementut honetan txarangaren batez besteko adina 18 urtekoa da. Gaur egun Aitor Motriko da Bizi-Poza txaranga zuzendaria. Bere hitzetan, “egurrezko instrumentuak nagusi dira txaranga baina metalezko instrumentuak falta dira”. Dena dela, ez da batere erraza gauza berriak erostea, izan ere, txaranga duen diru iturri bakarra jaietan jotzeagatik Udalak ematen dien dirulaguntza da. Mendaroko jaietan jotzeaz gain oso ekitaldi gutxi izaten ditu orokorrean Bizi-Pozak. Edonola ere, erreportorio zabala dute eta denetik jotzen

dute: kalejirak, vals-ak, martxak, pasodobleak... Astean behin entsaiatzen dute lehengo eskola prefabrikatueta.

Aurtengo jaietan hiru aktuzio izango dituzte. Lehenengoa uztailaren 19an izango da, Umeen Egunean. Eguerdiko 12:00etan hasiko den tanborradan hartuko dute parte. Bigarrenik, uztailaren 24an izango da aukera Bizi-Pozaren doinuak entzuteko. Egun horretan arratsaldeko 19:30ak aldera joko dute herriko kaleak alaituz salbearen ondoren. Azkenik, uztailaren 26an, Santana Eguna, jaietamaiera emango die gaueko 22:30etik aurrera.

Mendaroko TAXIA

Kontxi Urain

 **907 57 57 28**



INDUSTRIAS
LANBI, S.A.
MAKINAK NEURRIRA

Manipulazioa eta Muntaia - Makina Berezia Donostia-Bilbo Errep. 53. km.
Bruñidorak - Kontrol dimentsionala 20870 MENDARO
Tel: 943 75 50 00
Faxa: 943 75 51 62

Jai alaiak igaro itza-



Aitor Motriko
Bizi-Poza
txarangako
zuzendaria
"Bizi-Poza
txarangaren
etorkizuna
gazteen esku
dago"

- Noiz eta nola hasi zinen txaranga?
- Hasiera batean hamar lagun inguru elkartu eta txaranga bat sortzeko asmotan entsaiatzen hasi

ginen. Gure asmoa etorkizunean mendaroko jaiak alaitzea zen eta ilusio horrekin entsaia-tzen genuen. Azken laupabost urteotan txaranga eraberritzen joan da eta gaur egun 19 partaide gara guztira.

- Bide onetik al doa txaranga?
- Gure arazotxoak izan arren ondo doa. Oso pozik eta ilusioz beterik gaude aurtengo Santana jaietarako.
- Zer izan da zuretzat aipagarriena azken 5 urteotan?
- Beharbada, gure musika maila handitzen eta hobetzen joan dela urtetik urtera. Eta, batez ere, animoz eta ilusioz beteriko gazte talde batek osatzen duela txaranga eta hori oso garrantzitsua da.
- Zure ustez, zein harrera duzue jendearen artean?
- Nik uste harrera ona izan dugula. Jendeari orokorrean asko gustatzen zaio txaranga, batez ere edadetei pasodobleak eta horrelako piezak jotzen ditugunean.
- Nola ikusten duzu txarangaren etorkizuna?
- Alde batetik nire zalantzak baditut. Talde gaztea izatean, ikasketak direla-eta etorkizuna ez dut batere garbi ikusten. Gerta daiteke jendeak, poliki-poliki, txaranga lagatzea beste gauza batzuk tartean sartzen direlako. Baina, hala ere, guztion artean ahalegin txiki bat eginez gero, txaranga aurrera jarraituko duela pentsatu nahi dut. Etorkizuna gazteen esku dago.
- Mendaroko martxa erraza al da ikasteko?
- Beste gauza asko bezala, behin ikasiz gero erraza da. Hor ez dago beste bueltarik.

Egunez ala gauez bizi dituzu jaiak?



DORLETA ARANBERRI
10 urte

Gauez, juerga gehixo itxen dalako, ambiente gehixo egoten dalako eta, batez ere, gehixo ligatzen dalako. Gauez jende gehixo ibiltzen da.

SUSANA GONZALEZ
19 urte

Gauez. Gaztien artian ambiente ona sortzen da eta nik behintzat gehixo disfrutatzen det. Normalena da gaztiak gauez gusturago ibiltzia.



JOSE MARI OSINALDE
53 urte

Bai gauez eta bai egunez, bietan ondo pasa leike. Egunez era bateko jendia ibiltzen da eta gauez beste era batekoa, eta baitxa antolatutik dauden ekintzen arabera.

JUANJO GOIKOETXEA
65 urte

Zaharturik nago gauez ibiltzeko eta nahixoa det egunez ibili eta bere orduan erretiratu. Egunez egoten dia neri gehixen gustatzen zaizkidan ekintzak: pelota partiduak, herri-kirolak...



GOXOKI

GOZODENDA

Mendarozabal, 5 - ☎ 943 75 51 90 -

ARBOLETA Jatetxea

Ondo pasa jaiak!

Jaietan bazkaldu edo afaltzeko leku proposa

Hirurtasun kalea 3 • MENDARO • Tel: 943 75 60 45

❖ Plater Tiraketa igandean

Igandean, uztailak 19, Plater Tiraketa izango da Santa Kruz zelaian, Kilimon-Zahar ehiza eta arrantza elkarteak antolatuta eta Mendaroko Udalaren eta zenbait etxe komertzialen babesarekin. Goizeko 11:00etan hasiko da, nahiz eta goizeko 9:00etan hasiko diren entrenamendu saioak. Izena emateko orduan bazkideek 1.500 pta. ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek 2.000 pta. (platerak barne).

❖ Pilota Txapelketa

Joan den astean, Afizionatuen arteko pilota txapelketaren finalaurdenak jokatu ziren Goñati pilotalekuan. Hasteko, Mendaro eta Elgoibarko alebinen arteko partiduak jokatu ziren ondoko emaitzekin: Aitor Agirrebeña **18** - Azpiazu **13**; Laskurain **22** - Sebas **20** ; Ubera **22** - Gutierrez **7**; Aurtenetxe **22** - Altuna **7**; Muniozguren **12** - Egimendia **22** eta Nagore (neska) **18** - Iriondo (mutila) **16** (alebina). Gaur, ostirala, hilak 17, finalurrekoak jokatu dira ondoren zehaztuko ditugun bikoteen artean:

ALEBINAK

Gaueko 21:00etan Agirrebeña-Iriondo
Ondoren, Azpiazu-Nagore

AFIZIONATUAK

Gaueko 21:45ean Laskurain-Ubera II
Ondoren, Aurtenetxe-Egimendia

Finalak uztailaren 25ean, Santixo Eguna, izango dira arratsaldeko 18:00etan. Jaialdi berean, Elgetako goi mailako afizionatuen txapelketaren errebantxa jokatu da Otaegi eta Muruamendiarazen artean.

❖ Afari herrikoa

Jai Batzordeak urteroko afari herrikoa antolatzen dihardu uztailaren 24rako, Santixo bezpera. Afaria gaueko 21:30ean izango da, Herriko Enparantzan. Menuan marmitakoa, erredondoa saltsan, San Markos tarta, edaria, kafe konpletoa eta txanpaina izango dira eta kostua 1.600 pta.koa da. Afari-txartelak ondoko lekuetan eros daitezke uztailaren 20a baino lehen: Aizpe, Kilimon Zahar, Bustin Alde, Ormola, Txirristaka eta Udaletxea.

Txirrindulari lasterketa

Joan zen larunbatean jubeni mailako Mendaroko XIII. Saria jokatu zen. 208 txirrindularik hartu zuten parte baina horietatik 128k lortu zuten lasterketaren 50

km.ak denbora barruan betetzea. Irabazlea Jokin Ormaetxea izan zen, bigarrena Alexander Juankorena, eta hirugarren postuan Iñaki Macias sailkatu zen.



❖ Jubilatuen eguna

Joan den igandean Mendaroko zaharrek euren eguna ospatu zuten. Meza izan ondoren, bertsolari, trikitilari eta herri kirolen jaialdi polita izan zen ikusgai. Egunari bukaera bikaina emateko bazkaria izan zuten *Aizpe* elkartearen, guztira 100 lagun elkartu zirelarik.

❖ Mendaroko txistularien ekitaldiak Santana jaietan

Jaietako egitarauan azaltzen ez bada ere, Mendaroko Txistulari taldeak ere eskainiko ditu hainbat saio Santana jaietan zehar. Hona hemen programazioa:

Uztailak 19

9:00 Kalejira

Uztailak 24

17:30 Alkate soinua joko dute Salbearen sarreran.

Uztailak 25

8:00 Sokamuturra hasi aurretik diana izango da.

Uztailak 26

10:30 Santanarako prozesioa zabalduko dute.

❖ Play-back lehiaketa

Gero eta jende gehiago erakartzen duen lehiaketa hau uztailaren 24an izango da, gaueko 24:30ean hasita. Bertan Mendaroko edozein pertsona edo taldek har dezake parte. Izena Udaletxean eman daiteke hilaren 20a baino lehen. Lehenengo saria 25.000 pta.koa da, bigarrena 15.000 pta. eta hirugarrenak 10.000 pta. eskuratuko ditu.

*Peio Ezkurrak 36 urte ditu eta gaur egun Las Rozasen bizi da, Madrilén. Masaiak ematea izan du lanbide urte askoan eta oraindik ere jarraitzen du baina, horrekin batera, beste hainbat arlo ere landu izan ditu, besteak beste, pintura eta sikoanalisi terapiak. 1998ko San Bartolome jaien kartel lehiaketa berak irabazi duela aitzaki hartuta, Peiorekin izan gara telefonoz berbetan eta, egia esan, kartel irabazleari buruz beharrean, beste hainbat eta hainbat gai-
ren bueltan aritu gara.*

ARRAZO
EZKURRA
PEIO

“Nire asmoa masaiak, terapia eta artea integratzea da”

– Masajista, pintorea, terapeuta... Ez da erraza zu definitzea.

- Nire benetako bokazioa artea izan da beti. Kontua da, gaztea nintzenean, etxean ez zutela bideragarria ikusten Arte Ederrak ikastea. Hortaz, aita masajista zenez, haren pausoak jarraitu nituen. Halere, gaztetan lotsatia nintzen, komunikatzea kosta egiten zitzaidan eta artean, pinturan aurkitu nuen nire sentimenduak espresatzeko bidea.

– Gestalt terapiak, psiko-terapia... Nola hasi zinen kontu horietan?

- Autoestima aldetik nahiko arazo nituen eta ikastaro horien berri izan nuen. Ikastaro hauek oso gogorak dira. Uste dugu irribarre batekin aterako gara baina, bai zera! Erabat atsekabetua ateratzen zara.

Nor bere barrura begiratzea oso gogorra da. Maskara batekin bizi gara eta maskara hori kentzeko ahalegin handia egin behar da.

– Baina merezi du.

- Dударик gabe. Jende askok uste du honelako gauzak sektarioak direla eta abar. Nik garbi daukat erreka pasatzeko itsasontzia hartu behar dela. Norberak bilatu behar du zein den erreka pasatzen lagunduko dion itsasontzia. Begira, badago ipuin oso polita: Baze goen behin sagar bat zuhaitzean zintzilik. Halako batean gorritzen hasi zen eta berarekin zeuden sagarrek barre egiten zioten. Sagarrak asko sufritzen zuen desberdina zelako. Egun batean zuhaitzetik erori zen. Zein da mezua? Sagarrak heldua zela, gainontzekoak ez bezala. Pertsonok

helduak izateko momentu txar asko pasa behar izaten ditugu askotan.

– Baina bidea guk jorratu behar dugu.


- Hori argi dago. Nire gaztetako ametsa Parisera joatea zen. Hura paradisua zen niretzat, egun osoa kallean, margotzen... Eta hara joan nintzen. Baina aurkitu nuena ez zen nik uste nuen bezalakoa eta muturrekoa hartuta itzuli nintzen, nire amets eroa bueltan ekarriz. Hala ere, ibilitako bidea hor geratzen da, ikasgai bat gehiago da. Beti sinestu izan dut hobe dela egin izan den zerbaitez damutzea egin ez izanagatik baino.

– Alabatxo bat izan berri duzu, Eva Luna.

- Bai, Isabel Allenderen liburua bezala deitzen da. Nire barruan dagoen haurra ezagutzen ari naiz berarekin. Gainera, down sindromea duten hurrekin ari naiz lanean Madrilén. Oso aberasgarria da zeren eta denetik lantzen dugu, terapia, sikomotrizitatea, artea... Hurrekin lan egitea asko gustatzen zait, maliziarik ez dute eta asko estimatzen dute zure lana, helduek ez bezala. Musu bat ematen didatenean zoriontsu itzultzen naiz etxera.

– Noizko berriz Elgoibarren?

- Hilean behin joaten naiz masaiak ematera. Nire helburua masaiak, terapia eta artea, hirurak integratzea litzateke, beti ere jendeari laguntzeko asmoz. Horrez gain, San Bartolomeetan bueltatxo bat eman-
go dut, besteak beste, sari banaketa data horietan egin nahi dutelako.



DISNEYLAND 3 gau

(4 egunerako sarrera doan)

(Hendaiatik trenez) **45.950** pta.tik(Miarrizetik hegazkinez) **56.700** pta.tik**PARIS** 3 gau(Hendaiatik trenez) **30.350** pta.tik(Miarrizetik hegazkinez) **50.300** pta.tik**MARRAKECH** 8 gau(Madriletik) **37.500** pta.tik**KRUZEROA MEDITERRANEOAN**(Bartzelonatik) **92.900** pta.tik**CANCUN** 7 gau (Madriletik)

Bidailaguna doan

Uztailak 28 **143.200** pta.**CARTAGENA DE INDIAS**

7 gau (Madriletik)

Uztailak 21 eta 28 . . . **109.900** pta.**ISLA MARGARITA**

7 gau (Madriletik)

Uztailak 21 eta 28 . . . **109.900** pta.**ISLA MARGARITA - CANAIMA**

7 gau (Madriletik)

Uztailak 21 eta 28 . . . **182.900** pta.**PUERTO PLATA** (Rep. Dominicana)

Uztailak 23, 28 eta 30 (Madriletik)

7 gau **105.900** pta.14 gau **137.900** pta.

(28 eta 30eko irteerek 5.000 pta.ko gehigarria dute)

ZIRKUITOAK AUTOBUSEZ**GALIZIA - Rias Baixas**7 egun P.O. **17.500** pta.tik**BENIDORM**8 egun P.O. **29.900** pta.tik**COSTA BRAVA**8 egun P.O. **37.500** pta.tik**ANDALUZIA**7 egun P.E. **40.900** pta.tik**SALOU - Port Aventura**8 egun P.O. **41.500** pta.tik**ITALIA**10 egun P.O. **79.500** pta.tik

Juan Godoy Bachiller

(1905-1994)



- 1905eko abenduaren 13an jaio zen, Caceres probintziako Aliseda herrian.
- 9 anai-arreba ziren, bera bigarrena. Eskola publikoetan ikasi zuen kokortu arte.
- Gazte denbora gainerako umeek bezala pasatu zuen, kirola eginez eta lagunekin jolasean. Zaletasun handia zuen mendian ibili eta arrantza egiteko.
- Herriko irin fabrikari egin zuen lan, aita ardura-duna zelarik. Bertan jardun zuen Salamancara soldaduzka egitera joan zen arte. Nahiko gustura pasatu zuen trantze hori.
- Salamancatik bueltan, berriz irin fabrikari hasi zen lanean. Herriko neska batekin ezkondu zen, Francisca Callejo Muñozekin, eta bi alaba izan zituzten.
- 1955ean Altsasura joan zen trenbidean lan egitera, errailen azpiko egurrak kendu eta zementozkoak jartzera.
- 1956an Elgoibarrera etorri zen, San Pedroko fabrikara. Handik gutxira, familia oso etorri zen. Ondoren Aizdon enpresan hasi zen lanean eta bertan jarraitu zuen jubilatuta arte.
- Club Deportivo bako bako zen eta sarritan joaten zen Lerunera zein erbestera futbol taldea animatzera. Elgoibartarrek gola sartzen zutenean 'farias' bat pizten zuen Juanek.
- Sasoi batean egunero joaten zen oinez Madarixara.
- Elgoibarko jubilatuetako lehenengo zuzendaritzakoa izan zen.
- Juan elgoibartarra sentitzen zen. Ezaguna zen herrian. Gizon apala, hizlaria, famili eta lagun girokoa eta sinesmenduna zen.
- Gogoko zuen jubilatuetara joatea eta pasiatzea. Bere zaletasunik gustukoena futbolak, zinea eta irakurtzea ziren.
- Gizon bikaina izan zen. 1994ko apirilaren 24an hil zen 89 urterekin.

Juanito Gorostiza

Tellabide

ITURGINTZA

- Berogailuak
- Suteen aurkako instalakuntzak
- Gas instalakuntzak

Ondo pasa Mendaroko jaiak!

Azpilgoeta 19.
 ☎ 943 75 50 62
 907 75 50 62
 MENDARO

**UZTAILEKO ORDUTEGIA**

Goizez: 9:00-13:00

Arratsalde: 15:30-20:30

ZATOZ ETA KONTSULTATU!



A

n zaharra
mito Go-
 asiera in-
 ziurrenik,
 egiten den
 eko askok
 dena. San

Frantzisko iturria agertzen zaigu erdi-erdian, atzean San Frantzisko kalearen hasiera eta ondoan, desagertutako San Frantziskoko komentua. Argazkia bitxia da benetan. Azokara etorritako jendea ikus dezakegu, eta erdi aldean, hiruzpalau txerri salmentarako. Ondo fijatuz gero, elgoibartarrak nola jazten zuten ikusiko duzue: gizonak atorrarekin eta emakumezkoak gona luzearekin eta buruan zapia.

igarriko zenuten zemi ireru...

Cordon, Vilarchao, c.b.
DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
 SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
 GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70

FADEK **ileapaindegia**
 solariuma

Abuztuaren
 8ra arte zabalik

Errosario, 23 behea
 Tel: 943 74 26 92

OIERKI IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan
 konponduko dizugu igogailua

☎ 943 20 35 15 ● ☎ ABERIAK 943 20 35 15
 Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR


PINTURAK
 PEDRO PEREZ BERISTAIN

San Roke, 30 behea. ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA



"Kritikak Clementerentzat izan dira baina errua denona da"



Joseba Etxeberria

- **Adina:** 20 urte.
- **Mundialeko jokalaria gogokoena?** Frantziako Zidanek bi gol polit sartu zituen finalean baina goleatzaile on asko dago: Suker, Batistuta...
- **Partidurik politenak?** Holanda eta Brasil edo, Brasil eta Dinamarka.
- **Zein talde gustatu zaizu gehien?** Arjentinak talde ona duela erakutsi du nahiz eta bide erdian geratu den.

- **Zer moduz oporretan?** - Oporrak beti etortzen dira ondo. Hilaren 27an hasten naiz entrenatzen eta ordu-ra arte ahalik eta gehien disfrutatzen eta deskantsatzen ahaleginduko naiz.

- **Ahaztu al duzu Mundialetako porrota?** - Mundialeko gauza onenekin geratu naiz. Esperientzia hartu dut eta taldean oso giro ona izan dugu nahiz eta gauzak gaizki joan. Guztiok genuen ilusio handia. Baina futbolean batzuetan irabazi egiten da eta besteetan galdu.

- **Zergatik uste duzu egin duela horren paper eskasa Espainiak?** - Txapelketa batean gaizki hasten bazara gero dena okertzen da. Gaur egun futboleko berdintasun handia dago eta edozein taldek sor diezazkizuke arazok. Lehenengo fasea nahiko aspergarria izan zen, gol gutxi eta enpate asko. Berdintasun handia dagoelako izan da.

- **Handi usteak ez al die kalte egin, bai Espainiari bai Brasili?** - Hasieran hemengo komunikabideentzat faboritoak ginen. Gurea talde ona da, baina asko daude onak direnak. Bagenekien Mundial batean paper ona egitea zaila dela baina beti izan behar da ilusioa. Oso talde erregularra izan behar da goian egoteko. Mundial batean edozer gerta daiteke, baina gauzak gertatzen direnean, orduan askok bizkarra ematen dizute. Kritika guztiak Clementerentzat izan dira baina taldea denok gara eta errua guztiona da.

Horrelako kritikek min ematen dute. Brasilen kasuan, berriz, txapelketa izateko faboritoa zen. Finalera iritsi da baina ez du irabazi. Eta badirudi, irabazi ez duela Mundialean paper txarra egin duela.

- **Frantziako entrenatzaileak kargua laga behar du Munduko txapelketa izanda. Clementek, berriz, segitu egingo duela esan du.** - Clementek helburu argi bat dauka: selekzioa talde bat bezala izatea. Beste selekzioetan jokalariek oso onak dira baina ez dago talde-senarik. Mundialean 32 talde egon dira eta 22 edo 26 taldetan, jokalarien arteko harremanak oso txarrak dira. Honez aparte, Frantziako selekzionatzaileak finalera iritsi aurretik oso kritika txarrak jaso ditu komunikabideen aldetik eta orain, berriz, kritikek buelta eman dute. Berak esan du sekula ez duela ahaztuko zein gaizki portatu diren berarekin komunikabideak.

- **Estreinakoz izan zara Mundial batean. Japoneko Mundiala iristeko gogoz?** - Ilusioa badut, noski. Horretarako lanean jarraituko dut, gogor. Badakit zaila izango dela. Lehenengo Eurocopa dago eta espero dut bertan ere izatea.

- **Agian Euskal Selekzioarekin izango zara.** - Hori erabaki politiko bat da, ez dago gure esku. Hala ere, ondo legoke euskal selekzioa sortzea eta maila handikoa izango litzateke gainera, ze bertako taldeak gogor dabilta eta euskaldun asko dago kanpoko taldeetan jokatzen.

AGURTZANE
ileapaindegia

- Astelehenetik larunbatera 9:00etatik 13:30era
- Ostegun eta ostiral arratsaldetan zabalik
- Aurrez deitu zerbitzu hobea izan dezazun
- Gizon, emakume eta haurrentzako orrazkerak
- Ezkongaiantzako orrazkera eta makilaia
- Solarium-a

Abuztuaz zabalik (10etik 16ra ezik)



San Bartolome, 4 atzealdea (Leku-Ederren) • Tel: 943 74 18 64

Aizkorak Mendibil eta PSK taldeak dira futbito Kopako eta Ligako txapeldunak

18 taldek hartu dute parte Urasandiko Futbito Txapelketaren XIX. edizioan

Urasandiko Futbito Txapelketaren finalak jokatu ziren pasa den ostiralean, hilak 11, Olaizaga Kiroldegian. Lehendabizi Kopako norgehiagoka jokatu zen. *Aizkorak Mendibil* eta *Lojantzi* taldeak aritu ziren aurrez aurre. Partidua 3 goleko berdinketarekin amaitu zen eta prorroga jokatu behar izan zuten txapelduna zein zen erabakitzeko. *Aizkorak Mendibil* taldekoek laugarren gola sartu zuten. Azkenean, 4 eta 3 amaitu zen partidua, *Aizkorak Mendibil* taldea Kopako txapeldun geratu zelarik.

Gaueko 23:00etan Ligako partiduari eman zitzaion hasiera. *Berrogei Duro* tal-

deak aurrea hartu zion PSK taldeari Jon Peli Uriguen-en golari esker. Baina beranduago PSK-koek bi gol sartu zituzten eta 2 eta 1eko emaitzarekin amaitu zen partidua. Ligako txapeldunak, beraz, PSK taldekoak dira.

Aurtengoa, Urasandiko Futbito Txapelketaren 19. edizioa izan da eta denera 18 taldek hartu dute parte, iaz bezala. Izan ere, joan den urtean hasi ziren partiduak Kiroldegian jokatzeko. Ordura arte Urasandiko Herri Eskolako kanpoetan izaten ziren partiduak, eta lehenago, askok gogoratuko duten bezala, Pilar ikastetxeko jolaslekuan.



Urasandiko Futbito Txapelketako Ligako txapeldun berriak: PSK taldekoak.



'Aizkorak Mendibil' taldea da Kopako txapelketako irabazlea. Partidua berdinketan amaitu zen eta prorroga jokatu behar izan zuten.

EMAITZAK

Futbol 7 Txapelketa

- 1664 G.A. 5 - www.winter-medio.com 5
- Elec. Egaña 2 - Faustino VII 17
- Ful Monti 0 - Aizkolariak 1
- De La Buena '2' 0 - Bassano '353' 12
- Ez Dok 4 - Guridi Taberna 7
- Malas Hierbas 3 - Anorthosis 2
- Spartak de Vladiskaskav 1 - Faustino VII 7
- 1661 G.A. 14 - Ele. Egaña 4
- R. Oso Takata B. 7 - Bassano '353' 3
- Ful Monti 0 - De La Buena '2' 1
- Violet Kickers 1 - Anorthosis 8
- Ez Dok 0 - Malas Hierbas 1

AGENDA

Futbol 7 Txapelketa, Unben

Final zortzirenak

Larunbata, 18

11:00 Inkision - Lojantzi

Bar Arkupe - Vulthur Griphus

12:00 Murruka - Bar Xare

Malas Hierbas - Faustino VII

Futbol 7 Txapelketa, Mintxetan

Final zortzirenak

Igandea, 19

11:00 Kadar - Bar Gure Toki

Azkenenegoak - Ke+Da

12:00 1664 G.A. - Bassano 353

R. Oso Takata - Anorthosis

aitor zabala

aitor zabala

LEKU ONA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak

Taberna
Ondo pasa jaiak!

Mendarozabal 13 - Tel. 943 75 60 65 - MENDARO

San Frantzisko, 27
Tel: 943 74 26 21

20 RI 2L

Gorrotoa ma- kinaren kon- tra

Azkenaldi honetan jasaten ari garen Techno inbasioari esker, kitarra hotsak eta prefabrikatutako eritimoak erabiltzen ez dituzten taldeen diskoak eskuratzen saiatzen gara, sorpresa dexente aurkitu ditugularik. **NOSTER MAGNET** taldearen azken diskoak, nahiz eta Black Sabbath taldearen itzala eduki, Stoogel edo MC5 taldeak gogorarazten dizkigu, psikodelia apur batekin jolasten dutelarik. 95ean argitaratu zuten "Dopes to infinity" izugarriaren ondoren, aurten "Powertrip" izeneko diskoa atera dute. Urrunetik datozen doinuek irekitzen dute trumoi eta tximista elektrikoez betetako disko hau, melodia labainkorrak hasieran, baina irangaitzak bukaeran. "Powertrip" honen alde negatiboa, 20 urte berandu heltzearena izango litzateke, baina zer arraio! 3 urterekin ez nuen Blak Sabbath ezagutzen. Azkenean abestiak gelditzen dira, nahiz eta taldea desagertu, abestiak dira taldea bizirik mantentzen dutenak eta ez alde-rantziz. Ea behingoz dinosaurioek gargarak egin eta begiak zabaltzen dituzten.

Iban Urizar eta Julen II



HILAK 24, XII. NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIA

Haritz taldekoekin batera Jamaika eta Moldaviako dantzariak hartuko dute parte

Haritz Euskal Dantzari Taldearen 25. urteurrena betetzen den urte honetan, Nazioarteko Folklore Jaialdiak 12. edizioa beteko du. Oraingo honetan Jamaikako "Ashe" dantzari taldeak eta Moldaviako "Veseliya" dantza eta musika taldeek jardungo dute Haritz Dantzari Taldearekin batera hilaren 24an Kiroldegian, gaueko 22:30ean izango den jaialdian.

Ohi den bezala, jaialdiari Haritz Dantzari Taldeak emango dio hasiera. Jose Inazio Sarasua Haritz Dantzari Taldeko zuzendariaren esanetan, "lehendabiziko zatian Zuberoako dantzak erakutsiko ditugu eta ondoren, Luzaideko ihauteriak". Otsailean Haritz Dantzari Taldeak eskaini zuen ikuskizun bera taularatu dute "baina zenbait aldaketa eta berrikuntzekin".

Haritzen emanaldiaren ostean, jamaikarren txanda izango da. "Ashe" izena du talde honek eta Jamaikako Ballet Nazionala da. Bertako kultura ederki adierazten dute euren dantza, jantzi exotiko eta musika bereziarekin. Jatorri askotako biztanlegoak ematen duen aniztasunaren ikutua dauka Jamaikako kulturak, ingelesaren kolonizazioaren eragina ahaztu gabe. Ezin ahaztu, baita ere, reggae musikaren ekarpena. Aniztasun

honen adierazle da "Ashe" dantza taldea.

Jaialdiarekin jarraituz, 1955ean Moldaviako hiriburuko "Veseliya" dantzari eta musika taldeko 50 lagunek prestatutako emanaldi "ikusgarria izango da. Talde handia da eta jaialdi askotan hartu dute parte". Honez gain, 22 Olinpiadetan hartu dute parte, baita 1985ean Moskun izan zen Gazteria eta Ikasleen jaialdian ere. Gaur egun, Moldaviako musika-tresna guztiez bailatzen dira dantzak laguntzeko: nai-a, zinpaloia, tanborra, kaval-a, kobza, okarina, tilinka,...

Sarrerak salgai

Txankakua Merkatari Elkartearen laguntzaz, sarrerak aurrez eskura daitezke Txankakuako dendetan 500 pta.n eta 200 pta.n jubilatuta, 14 urtetik beherako eta Gazte Txartela dutenentzat. Sarrerak aurrez erosten dituztenen artean, 10.000 pta.ko 5 sari zozketatuko dira Folklore Jaialdiaren hasieran.

Abuztuaren 24an, soka-dantza

Haritz Euskal Dantzari Taldeak soka-dantza eskaini zuela 25 urte betetzen dira abuztuaren 24an. Hori dela-eta, soka-dantza estreinakoz dantzatu zutenek eta gaur egungo dantzariak elkarrekin dantzatuko dute.



Ezkerrean Moldaviako taldea; behean Jamaikakoa eta alboan, Haritz Dantzari Taldekoak.





6NEMEN9

Pop-atic konpaktoa kalean dago

6nemen9 taldeak bere lehenengo CDa kaleratu berri du, "Pop-atic" izenekoa. Aurretik bi maketa atera zituzten, "6nemen9" eta "Ertzetik", baina honako hau orain arteko lanik garrantzitsuena dela esan daiteke. Martzel Mendizabal (bateria), Alberto Gonzalez (kitarra), Iosu Iriondo (baxua), Asier Etxaniz (kitarra) eta Mikel Cornejok (ahotsa) osatzen dute taldea. Iosu eta Mikelekin hitz egin dugu beraien diska berriari buruz.

- Denda bateko zein sailetan aurkituko dugu zuen diskoa? - Independienteak! Ja, ja... Pop-a, rok-a... Euskal musikan, bai, bai, ja, ja, ja!

- Bi urte pasa dira azken maketa atera zenutenetik. Zergatik hainbeste denbora? - Egixa esan, hasieran maketia grabatzeko asmua geneukan, baina ikusi gendun merezi zabala konpaktua etaratzia eta pruebia in gendun disketxiek, ia bateronbat animatzen zan argitaratzen. Ez zan urten eta azkenian guk erabaki gendun dandana itxia. Gero, *Elkarlanean* argitaletzekoek aukera eman ziguten banaketa itxeko eta onartu in gendun.

- Diska honetan konponketak daude, Mikele ahotsa hobeto entzuten da... Zergatik? - Sonidua garbitzen beti saiatu izan gera, zuzeneko

kontzertuetan batez ere. Grabaketa honetan sekula baino denbora gehixo euki dou grabatzeko, konponketak itxeko. Lasai hartu dou eta hori ikusten da.

- Kitarren artean elkarrizketa dagoela nabari da. - Beti in izan doun gauzia da, oin abesti berririk dia eta soinua garbixaua eta igual gehixo igaritzen da. Kitarrak inportantiak dia, baitxa ahotsa, koraak, teklauiak... Hola urten da, besterik gabe.

- Ez dituzue, euskal talde askok bezala, melodia tipikoak jotzen. - Alberto eta Txutxo saiatzen dia akordiekin atmosfera berezi bat sortzen, zeozer desberdina, eta horrek ematen dio punto berezi hori. Hala ere, sinplifikau laike akustika bat hartuta.

- Disko gogorra da entzuteko. Tripa asko dute abestiek. - "Ertzetik" maketia ez zan hau baino errezaua entzuteko eta, gainera, soinua zikinua zan. Ez dou pentsatzen bestien onduan

hain desberdina danikan.

- Letrak oso landuta daude. - Ez dia gauza esplizituak. Interpretazio asko etaratzeko aukeria ematen dabe. Paisajiak bezela dia, imaginak, sentimenduak...

- Zer nahiago duzue, kultozko taldea edo talde arrakastatsua izan?

- Kultozko taldea izatea zer da, jende gutxiri asko gustatzea? Hori da oin pasatzen jakuna. Saltzeko orduan argi dakagu gure produktua nahiko mugatua dala. Guri hau gustatzen jaku itxia eta itxen doguna 100 pertsonari gustatzen bajakue ondo, 500eri gustatzen bajakue, ba hobeto!

- Nola ikusten duzue Euskal Herriko musika? - Folklorikoa edo kañerua itxen da, ez dao erdi bideko gauzarik. Pop-ak euskeraz ez dau arrakastarik euki, hor daude Gari, Montoya... Gazteleraz eta ingelesez, aldiz, pop-a gehixen saltzen dana da.

- Ohikoa ez den azala egin duzue. Izenburua ere berezia da. Zer bilatu duzue, probokazioa, akaso? - Interpretazio asko ditxu izenburuak. Pop-atic-ek argi eta garbi "a tomar por el culo" esan nahi du, ba hori esaten diogu Danone kulturari, esaterako... Guri igual jaku itxen doun musikia pop-a dan, rok-a, folklorikua, sikodelikua... Eta hori ere isladatu nahi izan dou.

Iban Urizar



LANDA

ERRETEGIA

Garagarza, 32 ☎ 943 75 60 28

BEREZITASUNAK

♠ LEGATZA CHANPAGNE ERARA

♠ GANBA ETA INTXAUR PUDDING-A

Jaiak ondo pasatu !!

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 943 461111
 Txanda hartzeko . . . 943 743354
 Planning-a 943 742950
 Alkoholiko Anonimoak . . . 943740385
 D.YA (anbulantzia) . . . 943 464622
 Gurutze Gorria 943 743864
 Mendaroko Ospitalea . . . 943 756264
 Odol Emaileak 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 943 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 943 744366
 Udal Kirol Patronatua . . . 943 744415
 Kultura Zerbitzua 943 742158
 Mendaroko Udala 943 756100
 Ongizate zerbitzua 943741008
 Udaletxea 943 741050
 Udaltzaingoa 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 943 741626
 Kiroldegia 943 744415
 Kontsumo Bulegoa 943 743088
 Liburutegia 943 743525
 Musika Eskola 943 742145
 Mintxeta 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza . . . 943 740296
 Zaharren Biltokia 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 943 74 21 41
 HHI (EPA) 943 74 08 80
 Herri Eskola 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 943 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 943 74 44 80
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
 El Diario Vasco 943 74 40 73
 El Correo Español . . . 943 74 10 82
 Egin 943 10 84 21
 Zazpiki Irratia 943 74 34 74

24

ostirala

19:00 FOLKLORE JAIALDIKO DANTZARIEI ONGI-ETORRIA

Udal Areto Nagusian

22:30 NAZIOARTEKO XII. FOLKLORE JAIALDIA

Jamaika, Moldavia eta

Euskadi

Kiroldegian

Antolaitzailea:

Haritz Dantzari Taldea

26

igandea

10:00 ARTZAI TXAKUR ALEMANIARREN LEHIAKETA

Mintxetan

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA

“Anastasia”

Plaza Handian

25

larunbata

9:00 SARGOATERA

MENDI IRTEERA

Madalatik

11:30 MEZA

SARGOATEN

Ondoren, salda eta txorizo banaketa

12:30 BERTSOLARIEI SAIOA eta

TRIKITILARIEKIN

ERROMERIA

Antolaitzaileak: Elgoibarko

Izarra, Morkaiko,

DEBEMEN, Sallobenteko

Jai Batzordea eta Udala

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA

“El desafío”

Plaza Handian

30

osteguna

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA

“Scream II”

Plaza Handian

31

ostirala

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA

“Starship troopers”

Plaza Handian

17

ostirala

19:00 GAZTE ASANBLADAren BILERA

Gaztetxean

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA

“Hard rain”

Plaza Handian

23:00 KONTZERTUA

“Eguzkian” eta “Frijolo”

Oraikon

18

larunbata

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA

“Flubber y el profesor

chiflado”

Plaza Handian

20

astelehena

20:00 EGIN-ZALEEN

BILERA

Kimetz Elkartean

ZINEA



Zuzendaria: Mikael Salomon. Antzezleak: Mark Gordon, Gary Levinsohn, Ian Brice.

Hard Rain

EEBBetako herri batean eurite handi batek uholde demasa sortzen du. Agintariek biztanle guztiak herritik atera ondoren, badakite sakeatzaileen esku geratuko dela euren herria, ez baita egoera hau suertatzen den lehen aldia. Oraingoan lapur talde batek biztanle guztien aurrezkiak garraiatzen dituen kamioia atrakatzeko asmoa dutela jakiten dute.

Sallobenteko jaiak

ABUZTUAK 8, larunbata

18:00 Jaien hasiera

iragartzeko kanpai jotzea.

Ondoren, errosarioa eta **meza** auzoko hildakoen alde.

Jarraian, makailo-jana.

22:00 Bolo saioak.

23:30 Etzakit taldearekin erromeria.

ABUZTUAK 9, igandea

11:00 Meza.

Ondoren, txakur-lehiaketa eta bertsolariak.

14:30 Lagunarteko

bazkaria soinu-jole eta bertsolariekin.

18:00 Herri Kirolak: Peña eta Arriya II, Egi eta Aritzeta eta Mintxeta gaztea.

Bertsolariak: Lizaso eta Egaña.

Jarraian, zezenak eta **pottokak.**

22:00 Bolo saioak.

23:00 Gardokirekin erromeria.

ABUZTUAK 10, astelehena

SALLOBENTE EGUNA

11:00 Meza Nagusia.

Ondoren, aurrekua eta **pilota partiduak.**

17:00 Plater apurketa herrikoia.

Ordu berean, haurren jolasak, zezenak eta **pottokak**, eta **txokolatada** Txillarrerekin.

21:00 Emakumeentzako **bolo saioak.**

22:30 Bolo saioak.

21:30 Erromeria **Gelatxo** taldearekin.

● Gure-Bideko bazkideen urteroko afaria

Gure-Bide Elkarteko zuzendaritzatik aditzera eman dutenez, uztailaren 30an, gaueko 21:00etan, bazkideen urteroko afaria izango da. Nahi duenak izena eman dezake ohiko lekuetan uztailaren 27a baino lehen.

● Sargoateko erromeria hilaren 25ean

Elgoibarko Izarrak, Morkaiko Mendizale Elkartek, Sallobenteko Jai Batzordeak, DEBEMENek eta Elgoibarko Udalak Sargoateko erromeria antolatu dute hilaren 25erako, zapatua. Goizeko 9:00etan Madalatik Sargoatera oinezko ibilaldia egingo da. Ondoren, goizeko 11:30ean, meza izango da eta segidan salda eta txorizoa banatuko dira bertaratutako guztien artean. Eguerdiko 12:30ean German Meabe eta Ziarda bertsolarien jardunari emango zaio hasiera eta jarraian Zabaleta trikitilariarekin erromeria izango da. Eguerdiko 14:00ak aldera amaituko da jaiak.

● Artzai txakurren lehiaketa hilaren 26an

Real CEPPA elkarteko (Artzai Txakurren Kluba) Gipuzkoako ordezkariak antolatuta, hilak 26an artzai txakur alemaniarren lehiaketa jokatu da Mintxetan. Partehartzaileen artean elgoibartar bakarra dago, Mikel Atxa, eta artzai txakur alemaniar batekin lehiatu du. Estatu osoko 20 partehartzailek eman dute izena baina esan digutenez, 80 bat txakur elkartzea espero dute. Lehiaketak bi zati izaten ditu, banakakoa eta taldekakoa. Lehenengoan txakurrak banaka desfilatzen dute eta hainbat gauza aztertzen dira: edertasuna, jarrera, inteligentzia, pedigree-a etab. Honez gain, txakurrak zenbait lan burutu behar izaten ditu. On-

doren, sexua eta adinaren arabera, taldeka desfilatzen dute. Epaileek txakurrik konpletoena aukeratzen dute. Lehiaketa goizeko 10:00etan hasiko da eta amaieran den-dena garbi utziko duten agindua eman dute antolatzaileek. Era berean, txakur guztiek albaiariaren kontrola pasatu dute.



● Kontzertua Oraiko tabernan

Gaur, hilak 17, kontzertua izango da Oraiko tabernan. Zarauzko *Eguzkian* eta *Frijolo* taldeek joko dute. Lehenengoek punk-rock era-ko musika lantzen dute eta besteek reggae, ska, punk eta rock-a nahasten dituzte.

● Ibar-Gasteiz autopistaren aurkako manifestazioa

Bihar, hilak 18, Eguzki, EHNE, Gatzaga-Landa Herri Ekimena eta Gazte Asanbladek deituta, manifestazioa 19:00etan izango da Arrasateko Herriko Plazan. Elgoibarko HBK eta Gazte Asanbladak parte hartzeko deia zabaldu dute.

T H A N O A H

FARMAZIAK

	Egunez	Gauzez
18	Etxeberría	Etxeberría (Errosario kalean)
19	Etxeberría	Etxeberría (Errosario kalean)
20	Anduaga	Anduaga
21	Yudego	Yudego
22	Zabaleta	Zabaleta
23	Etxeberría	Etxeberría (Errosario kalean)
24	Zabaleta	Zabaleta
25	Bidasolo	Bidasolo
26	Bidasolo	Bidasolo
27	Yudego	Yudego
28	Anduaga	Anduaga
29	Etxeberría	Etxeberría (Errosario kalean)
30	Zabaleta	Zabaleta
31	Yudego	Yudego

ANDUAGA: Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

19 igandea Fotero
25 larunbata Zabaleta
26 igandea Idarraga
31 ostirala Doña Mercedes

ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: Lee Mayfield.
 Antzezleak: Robin Williams,
 Marcia Gay Harden.

Flubber

Philip, unibertsitateko irakaslea da. Erraz ahazten ditu gauzak, adibidez, bere emaztegai Sararekin ezkondu behar duen eguna. Egun batean gelatina itxurako formula bat asmatzen du (Flubber). Gelatina hau objetuetan itsatsita gertatzen denean, objetuek abiadura izugarrian mugitzeko gaitasuna hartzen dute. Hala ere, Sarak alde egiten du eta gauzek okerrera egiten dute.

OHARRA: Merkatu Txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdia da.

Bestelakoak

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Barran lan egiteko kamareroa behar da Deban. ☎ 943 19 24 33
- ◆ Pertsona bat behar da jaietan tabernan lan egiteko. ☎ 943 74 16 00
- ◆ Kamareroa eta sukaldarero laguntzailea behar dira. ☎ 943 74 45 34
- ◆ CNC fresadoran lan egiteko pertsona behar da. 1. mailako ofiziala edo esperientziaduna. Euskaraz hitz egiten dakiena. ☎ 943 74 12 97/ 74 06 64
- ◆ Taberna traspasatzen da Errosario kalean. Bezeroekin. ☎ 943 74 01 80

◆ ESKAERA ◆

- ◆ Hiru neska gara garbiketara lanetan aritzeko prest gaudenak. ☎ 943 74 25 39 (M. Luisa)
- ◆ Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin edo/eta umeak zein zaharrak zaintzeko. ☎ 943 74 21 88
- ◆ Neska euskalduna eskaintzen da uztail eta abuztuan haurrak zaintzeko. ☎ 943 74 17 61 (Miriam)
- ◆ Uztail-abuztuan lan egingo nuke haurrak zaintzen edo tabernan. ☎ 943 74 43 16 (Marimar)

Etxebizitzak

- ◆ Etxe bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 943 31 24 48
- ◆ Laredon, hondartzan ertzean dagoen apartamentua alokatzen dut. ☎ 943 79 52 80
- ◆ Jakan (Membrilleras), apartamentua salgai: bi gela, garajea eta trasteroa. ☎ 943 74 20 31
- ◆ Benidorm-eko Levanteko hondartzaren lehen ilaran apartamentua alokatzen da. ☎ 943 74 20 31
- ◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. Erdigunean. 2. pisua, ganbara eta igogailuarekin. ☎ 943 74 03 83/ 74 18 34
- ◆ San Bartolome 4an pisua daukat alokatzeko. Azkenengo solairuan. ☎ 943 74 21 15
- ◆ Abuzturako pisua daukat alokatzeko Zumaian. Guztiz jantzita. ☎ 953 86 12 24

Agurrak

- ◆ San Bartolome kalean, 4. pisuan dagoen 25 m²ko teiatupeko lokala salgai. 1.500.000 pta. Arantxa. ☎ 943 20 30 83
- ◆ Pointer arrazako txakurra galdu dut. 5 urte ditu, zuri-beltza da eta Kaz izenari kasu egiten dio. Microchip-a du. Ostegun gauean aldegin zuen. ☎ 943 74 05 48
- ◆ Papparreko brotxea galdu dut. Errobo forma dauka. Aurkitu duenak dei dezala 943 74 13 41ra eguerdian.
- ◆ Katu ar bat oparitzen dut. Lau urte ditu. Jateko platera eta abarrek. ☎ 929 47 76 98
- ◆ Caritas-ek etxe bat jazteko denetik behar du. ☎ 943 74 15 09/74 12 57
- ◆ Perikito berde bat galdu zait. Norbaitek topatu badu dei dezala, mesedez. ☎ 943 74 08 10
- ◆ Hiru-Iturri inguruan bastoi bat galdu nuen. Norbaitek aurkitu badu, dei dezala. ☎ 943 74 15 09
- ◆ Urrezko pultsera bat galdu dut. Norbaitek topatu badu dei dezala 943 74 41 28 telefonora (gauetz).
- ◆ Haur Eskolan (Arregitorre 4) perikito urdin bat agertu zen ekainaren 30ean. Galdu duenak dei dezala 943 74 21 41 zenbakira.
- ◆ Bi hilabeteko Cocker arrazako txakur kumeak salgai. ☎ 943 75 60 25

Partikularak

- ◆ Abuztuko azken hamabostaldirako matematikako, euskarako, geografiako eta, ahal bada, latinek klase partikularrak emateko irakaslea behar dut. ☎ 943 74 38 49
- ◆ Frantseseko klase intentsiboak emango ditut uztailean. Oinarrizko maila. ☎ 943 74 04 59 / 19 24 59
- ◆ Fisika eta matematikako klase partikularrak ematen ditut. ☎ 943 74 13 34 (Andoni)
- ◆ Uztailean eta abuztuan marrazketa, fisika, kimika eta matematikako klase partikularrak ematen ditut. ☎ 943 74 36 45 (Miguel). Eguerdiko 13:00etatik 15:00etara
- ◆ Ingeles klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ 943 74 07 86
- ◆ Alemaneko klase partikularrak ematen ditut. ☎ 943 74 00 98



◆ Zorionak **Aintzani** hilaren 21ean 5 urte beteko dituelako. Leire eta familia osoaren partez.

◆ Zorionak **amama Bixentari** eta musu handi bat urteak beteko dituelako. Gorka eta Ioneren partez.



◆ Zorionak **Ane Lenizi** uztailearen 19an urtebete beteko duela. Aitona-amona eta osaba-izebaren partez.

◆ Zorionak **Arkaitz Egañari** hilaren 14an 15 urte bete zituelako. Etxekoaren partez.



◆ Zorionak **Ur Ondarza Lobeteri** atzo, hilak 16, urteak bete zituelako. Aitxita eta osabaren partez.



◆ Zorionak zuri, zorionak **Jone**. Nagore eta gurasoen partez.



◆ Zorionak **Beñat Arriola** Arregiri hilaren 27an 5 urte beteko dituelako. Guraso eta anaia Jokinen partez.

◆ Zorionak **Igor Loidi Etxanizi** uztailearen 22an urtebete beteko duela. Guraso, aitona-amona, lehengusu eta Arantxaren partez.



◆ Zorionak **Nerea Lendinezi** atzo, uztaileak 16, urteak bete zituelako. Bere ahizpa Ainhoa eta Garaziren partez.



◆ Zorionak **Jaso!** Gure lan-kidea haserre dago orain arte ez dugulako BARRREn zoriondu (abuztuaren 12an oportet gaude-eta, jeje...). Baina aurten akordatu gara eta zorionik beroenak eman nahi dizkizugu. Oporrak, eguzkia, Cádiz inguruko hondartzak, ...Manoloren kontzertua San Fernandon akaso! Zenbat tentazio 27. urtebetetzea ospatzeko, ezta?



◆ Zorionak **Irati Bollarri** hilaren 21ean 10 urte beteko dituelako. Aiton-amon eta izeba Arantxaren partez.

◆ Zorionak **Javi Barrientosi** gurasoen eta Jenni ahizparen partez, uztailearen 15an 13 urte bete zituelako.



◆ Zorionak **Jesus Garitagoitiari** hilaren 15ean urteak bete zituelako. Zorionak bai-eta ere, egun berean bere ezkontzaren 20. urteurren bete zuelako. Emazte, seme-alaba eta amama Mariaren partez.

Aldibi

ALDIBI AUTOAK



MITSU ISHI
M T S
ALDIKAR AUTOAK, S. L.



ZATOZ, EZ ZARA DAMUTUKO

Olaso kalea, 23 - 20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 20 37 - Faxa: 943 74 35 24
(Lehen Autos Artetxe)

Zigarrola kalea, 1 - 20500 Arrasate
Tel: 943 71 20 02 - Faxa: 943 79 65 65

ZEZEN-BIDE

AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



*0% 10eko deskontua
Gazte Txartelarekin*

San Frantzisko, 43 - Tel: 943 74 27 20 - ELGOIBAR ■ Zezenbide,1-1 - Tel: 943 20 34 45 - EIBAR



MENDAROKO UDALAK

Santa Ana

jai zoriontsuak

opa dizkizue

herritar guztioi